

IKASLE KONTSEILUAK KRIMINOLOGIAREN JARDUNALDIETAN GERTATUTAKOAK DEITORATZEN DITU ETA UNIBERTSITATE ANITZ ETA SEGURU BAT ALDARRIKATZEN DU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2025eko martxoaren 26a – UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak atzo, martxoaren 25ean, Bilboko Elcano Ekonomia eta Enpresa Fakultatean izandako gertaerak irmoki deitoratu nahi ditu. ELSA UPV/EHUk antolatutako jardunaldi akademiko batzuen aurrean egindako protestek ekitaldiaren ohiko garapena eragotzi zuten, eta pertsona bat zaurituta amaitu zen. Ikasle Kontseiluak bere elkartasuna adierazi nahi dio zauritutako pertsonari, bai eta jardunaldietan parte hartzeko aukera galdu zuten guztiei ere.

Ikasleen ordezkari gisa, unibertsitate publiko bat defendatzen dugu, non ideia anitzek elkarrekin bizitzeko aukera izan behar duten, betiere elkarrekiko errespetuan eta adierazpen askatasunean oinarrituta. Jarduera akademiko bat bortxaz edo mehatxuz etetea ez da bateragarria balio horiekin.

Iñigo Ugedok, Ikasle Kontseiluko presidenteak, adierazi du: «Uste dut kontzentrazioak, pertsonen segurtasunaren edo ondasun materialen aurkako arriskurik sortzen ez badute eta jazarpenik ez badakarte, unibertsitate publiko batek izan behar duen normaltasun demokratikoaren parte direla. Hala ere, kasu honetan muga batzuk gainditu dira, eta ezin dira gainditu.»

Ikasle Kontseiluak ulertzen du eztabaida legítimoak egon daitezkeela unibertsitatean zenbait instituzio edo erakunderen presentziari buruz. Hala ere, eztabaida horiek elkarriketaren bidez jorratu behar dira, eta ez indarkeria edo segurtasun ezaren bidez. Desadostasunak ez luke inor baztertzera eraman behar.

Halaber, aldarrikatzen dugu ikasleek askatasunez antolatu eta parte hartu ahal izatea interesgarri dituzten formakuntza jardunaldietan, beldurrik gabe eta inolako mehatxurik gabe. Unibertsitateak espazio seguru bat izan behar du bertako pertsona guztientzat, eta hori bermatzea guztion ardura da.

Hori dela eta, unibertsitate komunitate osoari dei egiten diogu gertaerak heldutasunez aztertzera, eta gure prestutasuna adierazten dugu Errektoretzarekin eta ikasleen gainerako eragileekin elkarlanean aritzeko, halako egoerak berriro gerta ez daitezen.

UPV/EHUko Ikasle Kontseilua Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua